

Zubieta (Zubita)



ETXABE ARRUABARRENA familia

ZUBITA Aiestaran Erreka auzoko baserria da. *Amondarain* errekaen ertzean egonda, zubiaren alde batean dagoelako deitzen zaio *Zubita*. Inguruko baso eta zelaien artean daude *Muñei eta Zuazola*.

Maizter bizi izan zen han Etxabe Arruabarrena familia. Baserriaren jabea Joan Manuel Mendizabal zen, *Joamanuelenekoa*. Argindarra sortzen zen *Zubitan*.

Miel Antonio Etxabe eta Joana Arruabarrena 1930ean ezkondu ziren Zaldibin. Miel Antonio *Konporta* baserrikoa zen eta Joana, berriz, *Koaikoa*.

Miel Antonio igeltseroa zen eta Joanak zentralerako lanak egiten zituen: parrila edo sarea garbitu, presako hostoak kendu, errekan ura jaisten zenean atea itxi, presa berriro betetzeko, argindarra kendu trumoi eta tximista zenean. Zentralerako lanez gain, bazituen oiloak eta untxiak eta baita baratzea ere etxerako.

Bost seme-alaba izan zituzten: Karmen, Miren, Joxe, Ramonita eta Prontxio. *Zubitako* neskek oso umetan atera ziren etxetik neskame. Donostiako Hotel Floridara joan zen, adibidez, Ramonita, eta beste batzuk ume zain. Mutilak, berriz, inguruko fabriketara: Santa Mañara, Ikaztegieta, Tolosara, Ormaiztegi, Beasaina. Familia izugarri sakabanatu zen.

Oinez herriko plazatik ordu erdira dago baserria. Kalera zatak jantzita etortzen ziren. Zatak oinetako baldarragoak ziren eta haiek *Aztiako* karreran utzi, eta han oinetako dotoreak jantzita joaten ziren elizara. Bentaberrira ere joaten ziren dantzara eta noizbehinka baita Larraitzera ere.

Miren Etxabe Abaltzisketako *Gorriñe* baserriko Joxe Antonio Irastortzarekin ezkondu zen 1961ean, Salbatoren egin zuten otordua, erdian apaiza zutela, eta handik Logroñora joan ziren ezkontza-bidaian, Joxe Antonio han izana baitzen soldadu. Miren eta Joxe Antonio izeba Ramonarekin jarri ziren bizi izaten Zaldibin bertan. Okina zen Joxe Antonio. Hiru alaba izan zituzten: Mertxe, Karmen eta Miren.

Zubitan Joxe gelditu zen eta han bizi izan zen 1970 arte.

Gaur egun Irastortza Sukia familia bizi da *Zubitan*, etxea erositako eta berrituta. Joxe Ramon Irastortza *Goiko Bikatxekoa* da eta Maria Jexux Sukia, *Oberenakoa*.

Baserriaren arrastoa idatzietan

Errota honek izen asko izan ditu, Antxon Agirre Sorondok "Relación de Molinos de Guipuzcoa, según poblaciones" artikuluan dioenez: Zubiberrieta errota, Zubieta errota, Huarkazabaleta errota edo Markazabaleta errota.

Zubizarreta izenez ere ezagun izan omen zen, XIV-XV. mendeko errota eta ola artean aipatua.

Informazio emaila: Miren Etxabe



Joxe Etxabe, Gerardo Iriondo, Ramonita Etxabe, Joana (ama), Miren Etxabe, Prontxio Etxabe, Joxe (lagun hernaniarra) / Pepita Luloaga, Karmen Etxabe,..., Miel Antonio (aita). Zubita atarian bazkalondoan.



Miel Antonio Etxabe (aita) eta Joana Arruabarrena (ama).



Miel Antonio, aita.



Joxe Antonio Irastortza eta Miren Etxabe (Zubitako alaba).



Miren Etxabe, Joxe Antonio (gurasoak) / Karmen, Mertxe eta Miren (alabak).